


# PechaKucha
## 2020ko KREA BIDASOAN

**PECHAKUCHAREN BEDERATZIGARREN EDIZIOA BIDASOAN. PECHAKUKUCHA HAU 2020KO KREA BIDASOA TOPAKETARI AMAIERA EMATEKO EGINGO DA, APIRILAREN 2AN, OSTEGUNA BIDASOALDEKO ENPRESA EDO PROIEKTU SORTZAILEEK EGIN DITUZTEN LANAK EDO IZAN DUTEN IBILBIDEA PUBLIKOARI AURKEZTEKO AUKERA IZANGO DUTE.**

**IZEN EMATEA OTSAILAREN 24A BAINO LEHEN! (14:00AK ARTE)**

## PECHAKUCHA MUNDUAN

PechaKucha Tokyo 2003an sortutako ekimena da, arkitektoek eta diseinatzaileek beren proiektuak eta lanak publikoan formatu xume, azkar eta oso bisualean aurkeztu ahal izateko plataforma gisa. Gaur egun, PechaKucha formatua era guztietako proiektuak aurkezteko erabiltzen da: Enpresa sortu berriak, herritarren ekimen berriak, bidaia inspiratzaileak, kezka edo gogoetak, sukaldaritza errezetak… ez dago adin-mugarik, ez hitz egiteko gai zehatzik; partekatzeko, inspiratzeko eta hunkitzeko zerbait duen orok du tokia PechaKuchan. PechaKucha ekimen ezformala da, dibertigarria, ideiak eta gogoetak partekatzeko sortzaileen biltokia… Aukera bat da beren lana publikoari erakutsi nahi dioten eta komunikabide masiboetara sarrerarik ez duten gazteentzat, erakusteko obra bai baina galeria bat betetzeko adina ez duten gazteentzat… Azken finean, pertsona sortzaileek beren lana publikoari erakusteko eta honekin partekatzeko plataforma perfektua.

**PechaKucharen formatuak ideia sinple bat du oinarrian: 20 irudi x 20 segundu.** Cada participante propone 20 imágenes, que se proyectan durante 20 segundos cada una, y sobre ellas hace su presentación.

Parte-hartzaile bakoitzak 20 irudi jartzen ditu, horietako bakoitza 20 segunduz proiektatzeko, eta horiez baliaturik egiten du bere aurkezpena.
Formatu honi esker, aurkezpen erakargarri, zehatz eta, normalean, dibertigarriak egiten ahal dira.

## PARTE HARTZEKO INTERESA BADUZU:

**Jar zaitez harremanetan Bidasoa bizirik-ekin:**
**Tel: 943 50 95 84**
**E-maila: ekintzailetza@bidasoa-activa.com**
**eta bidali eskatzen dizkizugun datuak:**

- Harremanetarako izena.
- E-maila eta telefonoa.
- Proiektuaren izena.
- Proiektuaren deskribapen laburra eta ikuspuntua.
- Aurkezpenaren hizkuntza.

**Otsailaren 26an, KREA 2020an aaurkurkeztuko diren proiektuak zeintzuk diren iragarriko dugu. Hautatutakoei beha arrerrezkoak diren argibideak emango dizkiegu 20 irudiak bidal ditzaten eta aurkezpenaenak presta ditzaten* ***(bilera bat egingo dugu martxoaren 16an).***

## PECHAKUCHA AURURKEZPENETARAKO IDEIA BBATZUK

Enpresa sortu berri bat aurkeztea, enpresa batek egindako lanak eta bere ibilbidea aurkeztea, norberak sortutako artelanak aurkeztea, babesa behar duen herritarren ekimenen bat aurkeztea, beste enpresa sortzaile batzuentzat baliagarriak izan litezkeen esperientzia edo gogoetak aurkeztea, eta abar.

**Modu positiboan baloratuko dira proiektu edo ikuspegi sortzaile, berritzaile edo harrigarria duten proposamenak.**

KREA BIDASOA
EKIMENA, BERRIKUNTZA ETA SORMENAREN ERAKUSTAZOKA
FERIA DE EMPRENDIZAJE, INNOVACIÓN Y CREATIVIDAD

Bidasoa activa Bidasoa bizirik · irun · HONDARRIBIA · spri · innobasque · Eusko Jaurlaritza Gobierno Vasco · Gipuzkoako Foru Aldundia Diputación Foral de Gipuzkoa